



ADUNAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ENERGIA ARLOKO DIRU LAGUNTZAK ENPRESENTZAT

Jaun/Andere hori,

Adunako Udalak, enpresetan ingurumen arloko hobekuntzek era ezberdinetako onurak ekar ditzakeela uste duenez, energiaren aurrezpen eta eraginkortasunarekin zerikusia duen honako laguntza-programen berri emateko idazten dizut:

1) Energia aurrezteko eta energia eraginkortasunerako programa:

- Xedea: energia aurreztea eta energia eraginkortasuna sustatzea enpresa industrial ertain eta txikietan. Horretarako, monitorizazio energetikorako sistema eta kudeaketa energetikorako prozesua ezarriko dira.
- Irismena: Arkitektura teknikoko proposamen bat egingo da enpresan monitorizazioak muntatzeko, eta laguntza tekniko eskainiko da horiek instalatzeko.
- Laguntza ekonomikoa: beharrezko materialen kostua zein instalazio kostuak enpresak ordaindu beharko ditu. Gipuzkoako Bazkondeak erosketa horiek kudeatzeko laguntza eskainiko du: monitorizazio ekipoak erosteko gehienez 900 euroko laguntza emango zaio enpresa bakoitzari.
- Epea: uztailaren 31n amaituko da.
- Harremanetarako (informazio gehiago jasotzeko edo zalantzak argitzeko): Gipuzkoako Bazkondea (jvillaverde@camaragipuzkoa.com / 943 000 300).

2) Energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarriak industrian:

Diruz lagunduko diren jarduerak ENERGIA ERAGINKORTASUNAREN alorrean:

- Energia ekipo osagarrien berritzeak eta energia-instalazioen hobekuntzak.
- Egungo industriako bulego-eraikinen inguratzaile termikoaren energia-gaiberritzea.
- Egungo industriako bulego-eraikinen energia-instalazioen berritzea.
- Baterako sorkuntza alorreko instalazio berriak.
- Energia-eraginkortasunaz energia-auditoria integralak ETE/PYMESetan.
- Industria kokaguneko jarduera osoan, energia kudeatzeko sistemen ezarpena, UNE-EN-ISO 50001 arauan oinarrituta.

Herriko Plaza 1 - 20150 Aduna

Tel. 943 69 25 71 • Fax 943 69 02 62 • E-mail: aduna@udal.gipuzkoa.net - www.aduna.net



ADUNAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Diruz lagunduko diren jarduerak ENERGIA BERRIZTAGARRIEN alorrean:

- Behe tenperaturako eguzki-instalazio termikoak.
 - Trukaketa geotermiko-instalazioak.
-
- Epea: irailaren 15a edo aurrekontua amaitu arte.
 - Harremanetarako (informazio gehiago jasotzeko edo zalantzak argitzeko):
Energiaren Euskal Erakundea (944 035 600).

Adunan, 2015eko uztailaren 7an.



Josu Amilibia Alsua
Adunako Alkatea

Herriko Plaza 1 - 20150 Aduna

Tel. 943 69 25 71 • Fax 943 69 02 62 • E-mail: aduna@udal.gipuzkoa.net - www.aduna.net